

PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA ENPRESEN FINKAPENA 2022

Xedea	2020ko eta 2021eko ekitaldietako autoenpleguari buruzko dekretuetan babestutako enpresen jarraitutasuna bultzatzea eta haien finkapena indartzea.
Erakunde onuradunak	18/2020 eta 77/2021 Foru Dekretuen kontura "enpresak martxan jartzeko eta sortzeko laguntzak" diru-laguntza esleitu zitzaizen erakundeak.
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:	<p>Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean gauzatzen diren ekintza hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Komunikazio eta marketin arloko plan bat egitea enpresaren jarduerarekin lotuta. b) Enpresaren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten digitalizazio-jardueretatik eratorritako gastuak. c) Enpresa-jarduera hobetzeko prestakuntza-gastuak. d) Laguntza tekniko espezializatuko zerbitzuak kontratatzearen ondoriozko gastuak, honako helburu hauek dituztenak: enpresaren bideragarritasuna hobetzea, edo merkatuan edo negozioaren garapenean duen kokapena hobetzen laguntzea, produktua, zerbitzua edo prozesua hobetzeko berrikuntza, nazioartekotzearen bideragarritasuna, erantzukizun soziala edo ingurumen-eragina. <p>Diru-laguntza honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira administrazio-kudeaketako eta zerga-, lan-, finantza- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu arruntak.</p>
Diru-laguntzaren zenbatekoa	<ol style="list-style-type: none"> 1. Entitate onuradunak lor dezakeen gehieneko dirulaguntza 2.000 eurokoa izango da. 2. Diruz lagun daitezkeen ekintzak 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean gauzatu beharko dira.
Arautegia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2022 FORU DEKRETUA, martxoaren 22koa . Laguntzak emateko, norgehiagoka araubidea erabiliko da.
Epeak	<p>Ekintzak egiteko epeak: Diru-laguntza jasotzen duten ekintzak 2021eko urriaren 1etik 2022eko irailaren 30era egin beharko dira</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea eta modua Eskabideak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 1ean hasiko da, 09:00etan, eta 2022ko urriaren 1ean amaituko, 13:30ean. Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtuala erabiliz, 39/2015 Legearen 16. artikularekin bat. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da https://apli.bizkaia.net/apps/SEGURU/LanTrebaNet/JQD1/formularios/JQD1PrincipalAcceso.aspx?lang=eus Horretarako, sinadura elektronikoa beharko da (Izenpe, NAN elektronikoa, sinadura elektronikoa aurreratua, B@KQ...).</p>